



11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK



11. GJHk guztiontzako hiri-eredua lortu nahi du, bertako azpiegitura, zerbitzu eta espazioak inklusiboak, seguruak eta jasangarriak eginez.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira...

1. Udalerriaren egitura orokorra
2. Etxebizitzak
3. Bestelako zerbitzuak: garraio publikoa, aparkalekuak, espazio libre eta berdeen zuzkidura, ondare natural eta kulturala.
4. Lurzoru kutsatuak
5. Arrisku natural, teknologiko antopologiko eta sozialak

ZEIN PUNTUTAN DAGO ZARAUTZ?

Kokapena eta lurzoruaren egitura

Udalerriaren **lurzoru artifizializatua %18,3** da (Tokiko Iraunkortasun Adierazleak 2021), EAEkoa baino altuagoa, baina antzeko tamainako udalerriak baino baxuagoa.

Zarautzen egoitzarako lurzoruak %10,5 dira, sistema orokorrak %7 eta jarduera ekonomikoak %4 (udalplan).

Zarautzeko hiri antolatzeko **Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (ZHAPO)** 2008an onartu zen. Krisi ekonomiko-finantzarioa eta bestelako faktore batzuen eraginez (uholde arriskua adibidez), ZHAPOk orain arte 8 aldaketa onartu ditu, eta beste hiru tramitatzen ari dira.


Zarautzen egitura eta geografia ikusirik ez du nondik hazi askorik, eta lur berriak okupatzea saihestu nahi da, hiri-ingurunea eta landa-eremuaren arteko ingurumen lotura egokia eginez. Horregatik, ZHAPO diseinatu zenean eta ondoren eman den garapenaren lehentasunetako bat **hiri-bilbea birmoldatzea, hobetzea eta optimizatzea** da.

Hiri egitura eta ehundura

Hirigunea lautada batean kokatuta dago malda txikiko eremuan, hala ere, herrigunetik aldenduz goazelarik, lurraldearen topografia aldatuz doa eta irisgarritasun arazoak sortzen dira, adibidez Vista Alegre edota Azken Portun. Bi auzo hauetako oinezkoen mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko helburuz, igogailu publikoak eraiki dira:

Zarautzeko **biztanle dentsitatea** eskualdeko gainontzeko udalerrietako baino altuagoa da. Zarautzarrak gehienbat **herrigunean bizi dira, familia anitzeko blokeetan**, nahiz eta badauden ere **familia bakarreko edo bi familiako** etxebizitzak osatutako eremuak ere, hala nola, Vista Alegre azpia edota Talaimendin. **Landatar izaera** duten auzoei dagokienez, Urteta auzoa da etxebizitza multzo handiena erakusten duena, kasu honetan ere, familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzak dira.

Etxebizitza



	Nagusiak	Gainerakoak	TOTALA	Etxebizitza nagusien %
Zarautz	9.144	2.415	11.559	%79
Urola Kosta	29.426	7.079	36.505	%81
Gipuzkoa	295.370	52.741	348.111	%85
Euskadi	909.547	157.072	1.066.619	%85

Iturria: Eustat

Zarauzko **familia etxebizitza parkea 2020an 11.559 etxebizitzakoa da**. Etxebizitza parkearen bilakaera azken 10 urteetan eskualdekoa, Gipuzkoakoa eta EAeko bano txikiagoa izan da. 2018 eta 2020 artean Aldapeta eta Salberdinen eman dira batez ere etxebizitzak egiteko lizentziak, baita Talaimendin gutxi batzuk ere.

Etxebizitza nagusien portzentajea udalaz gaindiko erakundeena baino baxuagoa da, horrek esan nahi du etxebizitza huts gehiago daudela, edo Zarautzen kasuan, batez ere bigarren etxebizitzak direla.

2020an Zarauzko etxebizitzen batez besteko **antzinatasuna 44 urtekoa** da. 50 urte baino gehiago duten etxebizitzak behartuta daude EIT egitera eta Zarautzen **585 etxebizitza** dira, horietatik %52,5ak pasa dute EIT. Udalak hiru hilero EITren jarraipena egiten du.

Zarautzen, etxebizitzaren prezio altua eta alokairuko etxebizitza parkearen eskasia dela eta (alokairuan dauden etxebizitza gehienak uda sasoiko alokairua izan ohi dira), zaila da etxebizitza eskuratzea. Horregatik garrantzitsua da jabetza- eta alokairu-erregimen konbinazioa eta etxebizitza libreen eta babestuen konbinazio egokiak sustatzea. Azken urteetan ZHAPOn egin diren aldaketekin **Etxebizitzetara bideratutako lurzorua %3,6an handitu** da. Gehienbat aldaketa **babes sozialeko etxebizitzetara** bideratutakoak.


	Gehienezko m ² eraikiak	Babes sozialeko etxebizitza		Erregimen bereziko UET		Erregimen orokorreko UET	
		m ²	%	m ²	%	m ²	%
ZHAPO aurreikuspena (2008)	264.100	53.500	%20,26	56.100	%21,24	24.500	%9,28
ZHAPO egin diren aldeketekin (2008)	273.500	65.900	%24,10	59.900	%21,90	16.500	%6,03

Iturria: Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra (ZHAPO)

Garraio publikoa eta mugikortasuna

Herriak garraio publiko zabala dauka, tren zein autobus bidezkoa. Udal zerbitzuei dagokienez:

- **Hiribusa:** herri barruko zerbitzua eskaintzen du 4 linea desberdinen bidez. Honen erabilera goranzko joera izan du pandemiara arte.
- **Taxi-Bus zerbitzua:** herrigunetik kanpoko auzoetan bizi diren pertsoneri eta desgaitasuna duten pertsoneri ematen die zerbitzua.
- **Gaueko Taxi-Bus zerbitzua:** gauez beren etxebizitzetara joateko zerbitzua behar duten emakumeentzat eta gainerako kolektiboentzat.



Iturria: Udala

Oinezkoen eta bizikleten mugikortasun jasangarria, segurua eta irisgarria sustatuz, Zarauzko udalak lanean dihardu: Vista Alegre eta Azken Portu gainera igotzeko igogailuak jarri dira, bide heziketa egiten da Zarauzko ikastetxeekin baita oinbusa ere, oinezkoentzako kalea irabazten ari da udalerrria, oinezko, bizikleta eta autoentzako gune konpartituak sortzen ari dira eta trenbideak sortzen duen banaketa saihesteko pasabideak egiten ari dira, besteak beste.


Aparkalekuak

Aparkalekuei dagokienez, dagoen eskaintzaren 2/3 garaje-plazekin (gehienbat udalerrriaren iparraldean) eta 1/3 lurrazalekoekin (hegoaldean) egituratzen da. Eskariari buruz, ibilgailuen (auto eta furgoneta) eskari gehiena hon-dartzaren aurrealde osoan dago. Hainbat eremutan tokiko eskariak ia kontsumitu egiten du eskaintza osoa, besteetan berriz, oraindik aparkalekuen %20 libre geratzen da.

Aipagarria da udaran handitu egiten dela aparkalekuen eskaria, eta honek batez ere gainazaleko aparkalekuak hartuko dituela.

Parke, lorategi eta eremu berdeak

Zarautzen parke, lorategi eta berdeguneek **hiri lurzorua**ren **ia %21a** hartzen dute (Udalmap 2009), Gipuzkoako eta Euskadiko datua baino altuagoa. Honek **herriar bakoitzeko 15,4 m²** parke, lorategi eta berdegune suposatzen du, beraz, legeak eta OMEk ezarritako balioak gainditzen ditu, baina udalaz gaindiko datua baino baxuago da.



Iturria: Udalmap 2009

Gaur egun eremu berde garrantzitsuenak **Vista Alegreko parkea eta Mutxio parkea** dira, biak herrigunetik at. ZHAPOk aurreikusita dauzka beste eremu berde eta espazio libreak sortzea, adibidez, Santa Klara konbentuko partzela edota Irita eremua.

Ondare natural eta kulturala


Zarautzek **ondare ekologiko eta paisajistiko** interesgarria du hiri-bilbetik kanpo dagoena, eremu ez urbanizagarrian, eta ZHAPOk lurzoru honetarako araudia dauka, aberastasun hori babesteko beharrezkoak diren premisa batzuetan oinarrituta:

Bestalde, Zarautzek **ondare kultural eta arkeologiko** garrantzitsua dauka baita ere eta jasota dago Eusko Jaurlaritzak daukan ondare kulturalaren baitan baita ZHAPOn ere sailkapen desberdinarekin (Tokiko interesa 1 kategoria, Tokiko interesa 2 kategoria eta bestelako ondasunak). Kasu batzuetan, elementu batzuk katalogatuta egoteak eragozpenak sor ditzake hirigintza garapenean (adibidez Donejakue bidean eta bere ertzetan ezin dira moldaketarik egin).

Kutsatutako lurzoruak

Zarautzen **kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen** gehiengoa industria-jarduerei dagokie eta hiri-eremuan kokatzen dira. **Lurzorua kutsatu dezaketen jarduera edo instalazioak dituzten lurzoruen azalera 20,8 ha**-koa da. Udalerriko azalera erabilgarri osoarekiko aztertzen badugu Zarautzen **%6,8koa** suposatzen du, erkidegokoa baino baxuagoa (EAE %15,6 2018an).

Lurzoru horien azalera bat lehengoratu egin da, ia 15.000m², eta lan horiei esker, **kutsatuta egon daitekeen udalerriko azalera %7an murriztu da**. Lehengoratutako eremua eta beraz lurzoru kutsatuen kalitate-adierazpena lortu duena Salberdin eremu-ko iparraldea izan da.



Iturria: Udala eta Euskal Udalerriek GJH egiten dieten ekarpena II Txostena, Ihobe

Arrisku natural, teknologiko, antropologiko eta sozialak

Herrigunean arrisku natural, teknologiko, antropologiko eta sozialak ere antzeman dira, eta hauek hondamendiak sortzeko arriskua izateaz gain herritarrei eragin diezaioke, bai ekonomikoki, bai sozialki baita osasunean ere.

Arrisku naturalen artean Zarautzen garrantzi handiena duena uholdeak eta haize boladak dira, baita eguraldi arriskua ere, izan ere uholdeak batez ere enbatak eta marea biziak elkarrekin gertatzen direnean areagotzen dira. Zarautzen Uholde Arrisku Handiko bi Eremu (UAHE) daude izendatuta eta hurrengo irudian agertzen dira baita arrisku horiek duten intentsitatea ere.

- **ES017-GIP-ORI-01** UAHE, Iñurritza, Nekazabal, Barsarte, Elutzar eta Astierreka barneratzen ditu.
- **ES017-GIP-ORI-03** kostaldeko UAHE. Kostaldean olatu talken bidezko uholde-arrisku nabarmena adierazten du.

Gerta daitezkeen arrisku hauen kudeaketa egokia egin ahal izateko, Zarautzeko Udalak 2009.urtean onartutako Larrialdi Plana dauka. 2019. urtean larrialdi plan berri bat egin zen, baina onartu gabe dago oraindik.

EKIMEN ESANGURATSUAK

1.

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra momentuko egoeretara egokitzeko beharrezko aldaketak egitea, izan ere, hainbat faktorek eragin dute hasiera batean aurreikusitako plangintzan, hala nola, krisi ekonomiko-finantzarioak edota uholde arriskuko eremuan egotea hainbat eremu.

2.

Santa Klara konbentuko partzelaren erosketa



Santa Klara konbentuko partzelaren erosketa: Udalak partzela osoa erosi du ekipamendu eta espazio libreetara bideratzeko.

3.

Errotaberriko eremuaren urbanizazioa martxan jartzea

Errotaberriko eremuaren urbanizazioa martxan jartzea: Honek baimendu egingo du herriguneko enpresak, zein bestelakoak bertan sartzea.

4.

Etxebizitzaren sustapena



Etxebizitzaren sustapena: Etxebizitzetara bideratutako lurzorua handitu egin da Zarautzen, eta batez ere babes ofizialeko etxebizitzak (babes sozialak eta erregimen bereziko etxebizitza tasatua) sustatzeko lurzorua. Dagoeneko garapen batzuk egin edo egiten ari dira, hala nola, Aldapeta eta Salberdin.

5.

Taxi-Bus zerbitzua



Taxi-Bus zerbitzua: zerbitzu hau martxan dago herrigunetik kanpoko auzoei eta desgaitasuna duten pertsonen zerbitzua emateko. Gainera, gaueko Taxi-Bus zerbitzua ere badago herri barruan gaez etxera joateko zerbitzua.

6.

Hiri iragazkortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko neurriak

Hiri iragazkortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko neurriak: Irisgarritasun arazoak izan ditzaketen auzoetan mugikortasun bertikala sustatu da eta trenbideak sortzen duen banaketa gutxitzeko oinezkoen pasoak eraikitzen ari da udala ETSrekin lankidetzan.

7.

Akuiferoaren garbiketa

Akuiferoaren garbiketa: lurzoru kutsatuen kalitate-adierazpena lortzeko orduan, Salberdinen akuiferoaren garbiketa lanak ere egin dira.